



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

***EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO
POLITIKAREN KALITATE INSTITUZIONALERAKO
KONPROMISO, JOKABIDE ETA GOBERNU ONERAKO
KODEA***

EUDEL, 2013ko maiatza

Azken aldi honetan, gero eta nabariagoa izan da herritarrek jarduera politikoan jarrita zuten uste ona higituz joan dela pixkanaka, eta, era berean, aurkako jarrera larri samarra sortu dela haiengan, bereziki, arduradun politikoen aurka, eta, oro har, Politikaren aurka. Horiek horrela, instituzioek, alderdi politikoek eta ordezkari publikoek ahaleginak ugaltu behar dituzte, Politikak gizarte demokratikoa lortzeari begira duen garrantzia nabarmentzeko, bereziki hain zailak diren une hauetan.

Oso garrantzitsua da Politikak tokiko esparruan duen balioa berriz indartzea, esparru horretan jarduera politikoa herritarrengandik hurbil dagoelako, eta, gaur egun, oraindik ere, udalak direlako herritarrek hobekien balioesten duten lurraldeko maila politikoa. Bistan denez, jarrera hori eutsi behar zaio, eta areago indartu behar da.

Zalantzarik gabe, Europar Batasunean eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen krisialdi ekonomiko larri eta sakonaren ondorioz, pixkanaka higitzen ari da tokiko instituzioen eta udaleko bizitza politikoaren kalitate demokratikoa –horrelaxe onartu du Europako Kontseiluak berak–. Horiek horrela, maiz ikusten denez, areago handitzen ari da herritarren mesfidantza, eta arreta sakonez begiratzen zaie jarduera politikoa betetzeko ezinbestez behar diren zentzuzko tarteetan sartzen ez diren jokabide politiko guztiei.

Hortaz, bada, tokiko instituzioek eta ordezkari publikoek ahaleginak ugaltu behar dituzte, Tokiko Politikak duen balioa berriz ezartzeko eta herritarren konfiantza berreskuratzeko. Eskakizun publiko gehiago galdatzeko testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Politikak areago indartu behar du herritarrekin duen konpromiso eraginkorra, eta biziagotu eta azaleratu behar ditu balio publikoak, eta tokiko arduradun publikoen jokabideko estandarrak eta jarrera moralak. Eta horixe da, hain zuzen ere, kode honen helburua.

Hala ere, ezinbestez nabarmendu behar da –baina ez, autoatseginezko diskurtso bat egin, eta bertan gozo geratzeko– aski altuak direla Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Politikak arauak eta oinarri etikoak betetzeko tradizioz izan dituen estandarrak. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek seriotasunez jokatu dute beti gai eta baliabide publikoak erabiltzean. Dena dela, tokiko ordezkariak karguak dituztenek aditzera eman dute prest daudela konpromiso gehiago beren gain hartzeko, era horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko instituzioen kalitatea indartu, eta herritarrek tokiko ordezkariengan duten konfiantza finkatu ahal izateko.

Hala, bada, helburua kalitate instituzionala lortzea da; eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko instituzio guztiek eta, bereziki, instituzio horietako ordezkari politiko guztiek ezinbestez sartu behar dute tarteetan, helburu hori lortzeko. Ildo horretan, kode hau tokiko instituzio guztien (hau da, instituzioetako ordezkari guztien) baterako proiektu gisa hartu behar da. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek eta haien ordezkariak aditzera ematen dute konpromisoa hartzen dutela lortu nahi diren helburuekin.

Hortaz, neurri hauek gobernuko taldea eta oposizioko alderdiak ere sartzen dituzte tarteetan. Era horretan, tokiko egitura politiko horietako kide guztiei dagozkien betebeharrak, oinarri eta erantzukizun batzuk jasotzen ditugu; baina, aldi berean, zehatz azaldu ditugu banaka agertzen diren erantzukizun eta konpromiso jakin batzuk, eta zehatz adierazi dugu gobernuko taldeko kideei edo oposizioko alderdietako kideei dagozkien.

Hala, bada, kontua ez da kode hau onestea edo sinatzea, kontrol politikoa izateko edo elkar gaitzesteko tresna gisa baliatzeko. Kontua da kode honen edukia barneratzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen irudi instituzionala hobetzea, herritarrek beren instituzioengan jarrita duten konfiantza indartze aldera.

ZIRRIBORROA

I.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO POLITIKAN JARDUERA PUBLIKOAK EGITEKO JOKABIDE KODEA

Jokabide Kodearen helburuak

Jokabide Kode honen helburu nagusia da, alde batetik, tokiko ordezkari politikoek bete behar dituzten oinarriak eta balioak argitzea, eta, bestetik, oinarri eta balio horiek bete daitezkeen lagungarriak izan daitezkeen zenbait tresna finkatzea.

Tokiko ordezkaria den kargu publikoaren jokabidearen oinarriak

- **Osotasuna.** Osotasunaren bidez, zerbitzari publikoak era koherentean jokatu ahal du egunero, zerbitzu publikoaren oinarria eta horrekin bat datozen gainerako oinarriak betetz, esate baterako, alderdikierarik eza, eraginkortasuna, gardentasuna, legezketasuna, etab. Horrez gain, balioen arteko gatazka ezin saihestuzkoa denean, erdigune zuzena bilatuko du, hau da, lortu nahi diren balioen arteko konpromiso zuhurra.
- **Eredugarritasuna.** Herritarrek instituzio horren “ispiluari” begiratzen diote; eta, hala, beraz, instituzio horrek ezinbestez baztertu behar ditu udalaren irudi instituzionalari kalte egin diezaioketen –kalte apur bat bada ere– eta herritarrek tokiko gobernuengan duten uste ona honda dezaketen ekintza edo omisio guztiak.
- **Eskuzabaltasun subjektiboa.** Erabaki politikoak interes publikoa eta herritarren onura lortzeko baizik ez dira hartu behar. Hortaz, ez da susmorik txikiena ere sortu behar, hartutako erabakiak hartzailearen, bere senideen edo bere lagunen onurarako direla (edo izan daitezkeela), edota udalaren interes orokorrekirekin zerikusirik ez duten interes partikularren ondoriozkoak direla pentsatzeko.
- **Alderdikierarik eza.** Erabakiak hartzerakoan, jasotako aginpidearen ondoriozko betebeharren bat bete behar izanez gero, alderdikierarik gabe jokatu behar da beti. Mota horretako jardueretan, batere alderdikierarik gabe jardun behar da, esate baterako, langileak izendatzeko prozesuetan, administrazioko kontratazioan, diru-laguntzak ematean edo ukatzean, arauak ezartzean, eta finantza arloko edo bestelako baliabideak erabiltzean.
- **Kontuak ematea.** Hartutako erabakien eta egindako ekintzen erantzulea izango da beti. Horrenbestez, erabaki guztien arrazoi objektiboak jakinarazi edo azaldu beharko ditu, azterketa politikora eramane eta herritarrek ebaluatzeko moduan jarri beharko ditu, eta, hala dagokionean, bere gain hartu beharko ditu egindako akatsen ondorio politikoak. Kontuak ematean, bere gain hartu beharko ditu, beti eta

nolanahi, erabaki txar edo oker batek eragindako politika- edo kudeaketa-arloko erantzukizunak.

- **Gardentasuna.** Erabakiak hartzean eta ekintzak betearaztean, modu irekian eta gardenean arituko da, eta informazio fidagarria eta osoa eskainiko die herritarrei, hartu dituen erabakien arrazoiei eta prozedurei buruz. Era berean, erabaki horiei dagozkien finantza kostuak ere azalduko dizkie herritarrei; legeek horrela ezartzen dutenean baizik ez du murriztuko informazio hori, salbuespen gisa. Gardentasunari jarraiki, tinko eta erabakimenez egingo du gobernu irekiaren alde ("kristalezko gobernuaren" alde), batez ere, diru-kutxa publikoetan eta herritarrei eskatzen zaizkien zergetan ekonomiako eta finantzazko ondorioak dituzten erabaki guztiei begira.
- **Zintzotasuna.** Zintzotasunez jokatu beharko du, argi azaldu beharko ditu dagozkion zeregin publikoak egiteko oztopo izan daitezkeen interes pribatuak, eta beharrezkoak diren urratsak egin beharko ditu tartean egon daitezkeen edozein interes-gatazka konpondu ahal izateko. Hortaz, Zuzenbideak esandakoa bete behar du, prozeduren hitzari eta espirituari jarraitu behar die, ekonomia- eta finantza-arloko kudeaketa eraginkorra egin behar du, jokabide-kode hau bete behar du, eta izan ditzakeen interes-gatazken berri eman behar du, bai eta tokiko ordezkariak diren beste kargu batzuegan eragina izan dezaketen gatazken berri ere.
- **Begirunea.** Behar den begiruneaz hartuko ditu herritarrak, administrazio publikoko langileak eta gainerako ordezkariak, beti eta toki guztietan. Hortaz, ez du erdeinuzko hitzik erabiliko, gainerakoek dituzten eskubideak gordeko ditu, ez du inolako bereizkeriazko jokabiderik izango, eta adeitasunez hartuko du jendea, erakundean eta tokiko erabakiak hartzeko prozesuan bakoitzak betetzen dituen rolak aintzat hartuta. Adeitasunezko tratamendu bera izan beharko du erakundeko ordezkari politikoekin, enplegatuekin, hornitzaileekin eta herritarrekin.

Tokiko ordezkaria den kargu publikoak bete beharreko jokabideko estandarrak

Jokabideko estandarrak, jarduteko oinarri-multzoa dira, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkaria den kargu publikoak ezinbestez bete beharrekoak. Gutxieneko eginbeharren eta beharrianen zerrenda dira, ordezkaria den kargu publikoak kargu hori izatearen ondorioz bete behar dituen gutxieneko beharrianak. Horien bidez, zeregin horiek udal edo tokiko erakundeko egitura politikoan duten betekizun instituzionala indartu nahi da, herritarren aurrean eraginkortasunez betetzen direla egiaztatze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkaria den karguaren jokabideak estandar hauek bete beharko ditu:

Betebehar orokorrak

- Behar den begirunez eta errespetuz hartu beharko ditu gainerako pertsonak, beti eta nolanahi.
- Ez du isilpeko informaziorik edo kargu hori izatearen ondorioz jakin duen mota horretako informaziorik jakinaraziko, informazio hori isilpean gorde beharko baitu beti. Betebehar hori betetzean, gardentasun oinarriari dagozkion eginbeharrak ere bete beharko ditu.
- Bere jokabideak ez dio kalterik egingo ordezkatzeko duen erakundeak herritarren artean duen irudiari, ez eta berak duen ospe instituzionalari ere.
- Ez du bere kargu instituzionala inola ere baliatu behar onurak beretzat lortzeko, edo beste pertsona edo erakunde bati abantailak edo desabantailak eragiteko, legeak onartzen dituen diskriminazio positiboko kasuetan izan ezik.
- Beste pertsona edo enplegatu publiko batzuek beraren jarraibideak betetzen dituztenean, ahalegina egingo du pertsona horiek jarraibideak balia ez ditzaten onurak beraientzat lortzeko, edota hirugarren batzuei kalte eragiteko edo onura ekartzeko.
- Arrazoi objektiboak eman beharko ditu beti, erabaki politiko guztiak justifikatzeko, eta zentzuzko eran emango ditu horiei buruzko arrazoiak.
- Erabakiak hartzean, iritzi eta aholku guztiak hartuko ditu aintzat, bai eta konpondu beharreko arazoak izan dezakeen irtenbiderik zentzuzkoena eta eraginkorrena erabakitzeke eta bermatzeko lagungarri izan daitezkeen txosten eta azterketa guztiak ere.

Dagozkion erantzukizun publikoak baliatzea

- Dagozkion zereginak beteko ditu arduraz, arretaz, gardentasunez eta bere erabakien erantzule izateko borondatez.
- Ahalegina egingo du faboritismoz kutsatutako praktikak saihesteko, edo biderik ez emateko herritarrek susma dezaten pertsona edo erakunde batzuen aldeko tratua duela.
- Ez du bere karguari dagozkion eskumenik erabiliko, zuzenean edo zeharka, bere interesaren alde edo interes pribatuaren alde egiteko, edota pertsona edo talde jakin batzuen interesei onura ekartzeko.
- Bozketaren bat egin edo erabakiren bat hartzean, jendaurrean jakinarazi beharko du bere interesak kolisioan daudela interes publikoarekin. Era berean, zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala duenean, edo interesen arteko talka egon daitekeenean, ez du bozkatuko bozketa egitean edo erabakia hartzean.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatuko ditu, eta ez du ondasun publikorik erabiliko interes pribatuak lortzeko.
- Behar bezala bermatuko du berdintasunezko tratua emango diela herritarrei eta entitate eta erakundeei, inolako bereizkeriarik egin gabe.
- Zuzentasuna (berdintasuna) sustatuko du, eta eraginkortasunez kenduko ditu helburu hori osorik betetzeko aurkitzen dituen oztopo guztiak.
- Oro har, guztien artean onartu diren arauak eta gizarteko egiuneak gorde beharko ditu, bere jarduera publikoan eta dagozkion erantzukizunak betetzean.

Interesen arteko gatazkak

- *Interesen arteko gatazka sortuko da interes publiko baten edo batzuen, eta beste interes pribatu edo publiko batzuen artean interferentziaren bat dagoenean, eta, horren ondorioz, betebeharrak publiko nagusia independentziaz, objektibotasunez eta alderdikeriarik gabe betetzeko aukera arriskuan jartzen denean, edo estutasunean jartzeko itxura hartzen zaionean (Jospinen Komisioaren definizioa, 2012).*
- *Ahalegina egingo du interesen arteko gatazka oro saihesteko; ildo horretan, interesen arteko gatazka ageriko da, erabakiak hartzeko prozesu batean, pertsona batek interes pribatuaren eragina egon daitekeela sumatzen duenean, eta interes horiek nolabait oztopatzen edo desbideratzen badute betebeharrak publikoak betetzeko aukera.*
- *Ez ditu bere eskumen instituzionalak erabiliko prozedurak arintzeko, kargak kentzeko edo hirugarren batzuei onuraren bat emateko, udalarekin zerikusirik ez duten interesek bultzatuta.*
- *Era berean, ez du egingo udalaren interes publikoekin, zuzenean edo zeharka, talka egin dezakeen edo tokiko ordezkariaren jardura politikoa zuzenean edo zeharka zalantzan jar dezakeen negoziarik.*
- *Bere betebeharrak eta erantzukizunekin talka egiten duen –edo talka egin dezakeen– interes-gatazkaren eragina izan dezakeen kargu publikoak jendakarean eman beharko du horren berri berehala, eta, aditzera eman beharko du –ahal dela idatziz– gatazka hori dagoela, edo, besterik ez bada ere, ustezko interes-gatazkaren inguruko zalantza azaldu beharko du. Nolanahi ere, hala interesen arteko gatazka dagoenean, nola gatazka horren inguruko ustezko zalantza pizten denean, zuhurtziazko neurri gisa, instituzioaren izen ona gordetzeko, ez du parte hartuko interes-gatazka egon daitekeela-eta susmorik arinena pizten duten erabakiak hartzeko prozesuetan.*

Opariak eta (egon daitezkeen) onurak

- *Ordezkaritza duen kargu publikoak ez du onartuko, bere kargua dela-eta, pertsona edo erakunderen batek emandako oparirik edo zerbitzurik, gizarte eta adeitasunezko ohiko usadioetatik harantz badoa. Aipatutako ohiko usadioetatik harantz doazen opariei dagokienez, opari horiek erakundearen ondarean sartu beharko dira. Nolanahi ere, uko egingo die bere etorkizuneko erabaki politikoetan eragina izan dezaketen dohaintzei, opariei eta zerbitzuei.*
- *Ez du onartu behar inolako sarrerarik, txartelik, loteria-zenbakirik edo zuzeneko nahiz zeharkako bestelako onurarik, ohiko, gizarteko eta adeitasunezko usadioetatik harantz badoa, edota nolabait baldintzatu ahal baditu dagozkion erantzukizunak betetzean etorkizunean hartuko dituen erabakiak.*
- *Era berean, behar diren zentzuzko neurri guztiak hartu beharko ditu behar bezala bermatzeko bere hurbileko familia-zirkuluak ez duela jasotzen oparirik edo onurarik, pertsona edo entitataren baten aldeko tratua izateko susmorik txikiena eragiteko moduan.*

Tokiko ordezkaria den kargu publikoak beste kargu edo enplegatu publiko batzuekin edota herritarrekin duen harremana

- Behar den begirunez hartuko ditu udaleko arduradun politikoak, bereziki oposizioko alderdietako kideak.
- Era berean, oposizioko alderdietako kideek behar den begirunez eta adeitasun instituzionalez hartuko dituzte tokiko gobernuko taldeko kideak.
- Tokiko politikarien arteko harremanetan, adeitasuna eta heziketa nagusitu beharko dira beti.
- Begirunez eta arreta bereziz hartu beharko ditu udal-administrazioako enplegatu publikoak, bereziki berak egiten dituen zereginen dagokien jarduera-arloko edo jarduera-sektorekoak diren kideak. Hortaz, ez du begirune eta adeitasun hori aldatu edo kaltetu dezakeen jokabiderik izan behar.
- Herritarrei harrera egitean, zuzentasun eta adeitasun osoz jokatu du, eta gogotsu entzungo ditu haien proposamenak, iradokizunak eta kexak.

Gardentasuna: informaziorako sarbidea

- Erakundea kudeatzeko egiten diren jarduerak eta jarduera politiko guztiak gardentasun oinarriaren mende jarri beharko ditu, legeak isilpekotasuna eskatzen duenean edota hirugarren batzuen eskubideetan eragina izan dezakeenean izan ezik. Nolanahi ere, salbuespen horiek modu murriztailean ulertuko dira.
- Publizitate aktiboaren oinarria eraginkortasunez beteko du, bere instituzioetan gardentasuna bermatze aldera.
- Eraginkortasunez bultzatuko du herritarrek eta erakundeek jendaurreko informazioa eskuratzeko sarbidea izan dezaten, legeek ezartzen dituzten mugak aintzat hartuta.
- Behar bezala arrazoitutako erantzun arinak emango dizkie informazioa eskatzeko jasotzen dituen eskaerei.
- Bere udalean gobernu irekia ezartzearen alde, datuak berrerabiltzearen alde eta administrazio elektronikoaren alde egingo du.
- Herritarrek parte hartzeko finkatuta dauden bideak sustatuko ditu, bai eta Internet eta sare sozialak ere.
- Lanean ariutako da administrazioa irekia eta erraztua izan dadin, eta hizkera erraza eta ulergarria erabil dezan.
- Bere zereginak betetzean, une oro babestuko ditu izaera pertsonaleko datuak.

II.- GOBERNU ONERAKO OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek jarraian agertzen diren oinarrien arabera gobernatuko dute eta gauzatuko dute beren ekintza politikoa, kudeaketa politikoa ahalik eta gehien bete ahal izateko.

Oinarri horiek etengabeko hobekuntzako helburuak dira, eta ezin izango dira alde batera utzi gobernatzeko ekintzan, udalen tipologia desberdinaren ondorioz, tamaina, antolakuntzako egitura edo eskura dauden baliabideak aintzat hartuta.

Tokiko Gobernu Onerako Oinarriak bi ataletan egituratuta daude, helburuaren arabera: alde batetik, jarduera politikoari buruzko informazioa ematea, eta, bestetik, gobernariak baliabide publikoak kudeatzea.

Gobernu Onerako Oinarriak tokiko ordezkaritza duen kargu publikoaren jardueran

- *Indarrean dagoen sistema juridikoa gordeko du, eta herritarren oinarrizko eskubideak bermatuko ditu.*
- *Herritarrek gai publikoetan eta tokiko erabaki publikoak hartzeko prozesuetan parte har dezaten sustatuko du.*
- *Gardentasunez jokatu du erabakiak hartzeko prozesuetan, eta herritarrei behar den informazio guztia emango die, erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan.*
- *Herritarren beharizanei arin erantzun die, arazoak konponduko ditu, eta egiten dituzten eskaerak zentzuzko epean beteko ditu.*
- *Politika- eta gizarte-arloan eta herritarrekiko harremanetan bat etortzeko prest egongo da, eta buru argiz egingo du bitartekaritza-lana gizarteko interes desberdinen artean, gizarteko aktoreei arreta berezia eginez, batez ere, gizarte-egoerarik ahulenean daudenei.*
- *Berrikuntza sustatuko du erakundean, eta antolakuntzako egiturak eta prozedurak modernizatuko ditu.*
- *Udal-gobernantza azkarraren eta iraunkorraren alde egingo du.*
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta gizarteko kohesioa sustatuko ditu, eta era egokian kudeatuko ditu aniztasuna eta elkarbizitza.*
- *Baliabide publikoak eraginkortasunez eta zentzuz kudeatuko ditu, eta ahaleginak egingo ditu dirurik ez xahutzeko, edo justifikatu gabeko gasturik ez egiteko, eta zorpetze iraunkorra lortzeko.*
- *Hartzen diren erabaki politiko eta administratibo guztien erantzule izango da, batez ere, kudeaketan dituen emaitzei begira.*
- *Herritarrek udalerrikoak izateko duten sentimendua sustatuko du, baliabide publikoekiko begirunea izateak duen garrantzia indartuko du, eta baliabide horien erabilera arduratsua eta iraunkorra bultzatuko du.*

Gobernu Onerako Oinarriak, prestazio eta baliabide publikoak kudeatzeari begira

- **Iraunkortasuna.** Oreka zuzena bilatuko du gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloko lehentasunen artean, eta herritar guztien parte-hartzea sustatuko du. Hirigintzako plangintzako erabakiak hartzean, hiri-ingurune iraunkorrak eta adimentsuak sustatuko ditu, pertsonak dituzten beharrezanekin bat datozenak. Iraunkortasuna ez da ingurumen-arloa murriztu behar; aitzitik, baliabide-mota guztietara eraman behar da, baita ekonomia- eta finantza-arloetara ere.
- **Deszentralizazioa.** Tokiko autonomia indartuko du, eta, horrez gain, ahalegina egingo du erabakiak hartzeko, zerbitzuak egiteko eta baliabideak esleitzeko prozesuak lurraldeko unitate egokietan egin daitezen (barrutietan, auzoetan, etab.). Erabakiak hartzean, baliabideak esleitzean eta zerbitzuak egitean, lurraldeko deszentralizazioari jarraitzeaz gain, parte-hartze ehunaren kalitateak hazi eta hobera egin behar du.
- **Zuzentasuna.** Zuzentasunean oinarritutako politikak eta zerbitzuak egitearen alde joko du, hala helburu publikoari, nola zerbitzuen prezioari (tasei) begira; ildo horretan, tasak behar bezala egokituko ditu, herritar bakoitzak duen finantza gaitasuna aintzat hartuta. Pizgarriak jarriko dira, gizarte-egoerarik ahulenean dauden talde jakin batzuei emateko.
- **Berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen arteko egiazko eta benetako berdintasuna bermatuko da, oinarri hauek betez: tratu aldeko berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, generoko ikuspegia barne hartzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak kentzea, ordezkaritza orekatua lortzea, eta era koordinatuan eta lankidetzan aritzea.
- **Eraginkortasuna.** Zerbitzuak egiteko eta gastu publikoa kudeatzeko, eraginkortasunari lotutako irizpideak hartuko dira kontuan, mota guztietako baliabideak erabiltzean. Ildo horretan, zerbitzuen kostua aurrez jakin behar da, eta helburu argiak eta kudeaketako adierazleak finkatu behar dira, zerbitzu horien kostua ebaluatu ahal izateko.
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Hala erabakiak hartzeko prozesuetan, nola administrazioko prozeduretan edota tokiko botere publikoen jardueran, gardentasunaren oinarriari jarraituko zaio. Oinarri hori publikitate aktibokoa da, eta bitarteko egokia da herritarrek informazio publikoa eskura dezaten bermatzeko, betiere, legeek finkatutako gutxieneko mugak betez.
- **Konpromiso zibikoa, eta bertako hizkuntza eta kultura eta aniztasuna babestea.** Euskara eraginkortasunez ezarriko da, eta haren erabilera erabat zabalduko da, hala tokiko administrazioarekiko harremanetan, nola udalerri barruko gizarte-harremanetan. Euskal kulturaren adierazpide guztiak bultzatuko dira. Era berean, alderdi hauek sustatuko dira: aniztasunaren kultura, herritarren erantzukizun zibikoak, errespetuaren kultura, gatazkak era alternatiboan konpontzeko baliabideak eta bitartekaritza, bai eta gizarte-egoerarik ahulenean dauden pertsonak (gazteak, adinekoak, etorkinak, langabeak, etab.) osatutako kolektibo edo taldeek tokiko politikan parte hartzea ere, tokiko gobernuak bere interesak, iritziak eta ikuspegiak era egokian balioetsi ahal izan ditzan erabakiak hartzeko prozesuan.

- **Segurtasuna eta babes zibila.** Herritarrek arrisku naturalen aurrean gaur egun duten kontzientzia bultzatu, eta krisialdiko egoeren kudeaketa sustatuko da; horrez gain, ingurune segurua eta osasungarria bermatuko zaie biztanle guztiei, bereziki haurrei. Hirikoa edo udalerrikoa izateko sentimendua sustatuko da; horretarako, herritarren arteko elkarbizitza eta garapena lantzeko politikak prestatuko dira, eta herritarrek gune publikoan eta gainerako auzokideekiko harremanetan dagozkien betebeharrak eta erantzukizunak har ditzaten bultzatuko da. Horrez gain, beste alderdi batzuetara hedatuko da segurtasuna, hain zuzen ere, herritarren erosotasuna eta lasaitasuna hobetzeko eta osasuna bermatzeko (kaleak eta plazak zaintzea, urak eta hondakinak tratatzea, elikagaiak kontrolatzea, etab.).

ZIRRIBORROA

III.- TOKIKO ORDEZKARIAK DIREN KARGU PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNAK ETA KONPROMISOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETAN KALITATE INSTITUZIONALEKO POLITIKA ABIARAZTEKO

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-taldeetako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako alkateak eta beren gobernu-taldeek erantzukizunez gidatu behar dituzte udal-gobernua eta erakundearen zuzendaritza politikoa, instituzioekin zintzo jokatu behar dute beren zereginak betetzean, eta ahalegina egin behar dute herritarrentzat ahalik eta ongizaterik handiena lortzeko, dagozkien eskumenen esparruan, eta udalerriak eskura dituen baliabideak erabiliz.

Ondorio horretarako, konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte herritarren aurrean:

- **Instituzioa duintasunez ordezkatzea.** Alkateak (eta, harekin batera, gobernu-taldeko kideek) konpromisoa hartzen du instituzioa oro har ordezkatzeko, eta ez zati bat bakarrik. Europako Jokabide Kodean jasota dagoenari jarraiki, erantzule dira tokiko herritar guztien aurrean, bai eta botoa eman ez diëten bozkatzaileen aurrean ere. Instituzio-ordezkariak eta, orobat, tokiko agintariak dira, legezketasun demokratikoaren ondorioz. Hortaz, zuzentasun eta eutsitasun bereziz aritu behar dute kargua betetzean, eta beren jokabide publikoan eta pribatuan.
- **Herritarrei eraginkortasunez komunikatzeko eta gogotsu entzutea.** Udal-gobernuaren tokiko politika kalitatezkoa izan dadin, herritarren ikuspegitik, neurri handi batean, eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna izan behar da. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute eskura dituzten baliabide guztiak erabiltzeko (sare sozialak barne hartuta) herritarrekin harremanetan jartzeko, eta beren erabakiak eta, orobat, erabaki horiek hartzeko dituzten arrazoi errazak eta ulergarriak helarazteko. Horrez gain, hitz ematen dute gogotsu eta arretaz entzungo dituztela herritarren kezak, iradokizunak eta kezak, eta, era berean, arrazoiak emanez erantzungo dietela haien eskaerei, egoera dela-eta objektiboki horrela behar denean.
- **Politikak azaltzea eta helburu estrategikoak zehaztea.** Udal-taldeetako kideek hitz ematen dute helburu estrategikoak zehaztuko dituztela, horien bidez, udal-politika koherentea eta iraunkorra prestatu ahal izateko, herritarren onurarako. Politika hori bideratzeko, hiriko plan estrategikoak prestatuko dira, eta talde politiko eta gizarte- eta enpresa-arloko aktore guztiekin itunduko dira. Bestetik, epe laburragoan, aginduko planak edo gobernu-taldearen planak ere baliatuko dira. Nolanahi ere, udal-politikaren ardatz horiek ingurune aldakorren arabera egokituko dira.
- **Politikari lehentasuna ematea eta erabakiak hartzea.** Tokiko politikaren funtsa lehentasun politikoak finkatzeko da, are gehiago ekonomia- eta finantza-arloko krisialdian edo aurrekontuei eusteko egoeran egonik. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari

politikoek hitz ematen dute herritarrei egiten dizkieten zerbitzuen zorroari eutsiko diotela, betiere, ekonomia- eta finantza-arloko egoerak horretarako aukera ematen badu. Hortaz, erantzukizunez jardun beharko dute, udal-finantzen iraunkortasuna jokoan dagoenean, eta, ildo horretan, lehentasuna eman beharko diete udalerriarentzat eta herritarrentzat garrantzi handiena duten politikei (batez ere gizarte-egoerarik ahulenean dauden herritarrak aintzat hartuta). Horrez gain, erabaki korapilatsuak hartu beharko dituzte, testuingurua dela-eta hala behar denean (eta, gero, azalpen egokiak eman beharko dizkiete horiei buruz, udal-oposizioko alderdietako kideei eta herritarrei).

- ***Emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea.*** Tokiko gobernuko egituretako Politika arrazionalizatzeko prozesuaren ondorioz, ezinbestekoa da emaitzak edo helburuak lortzeko lan egitea, udalerriak onetsitako helburu estrategikoak eta gobernuko edo aginduko planak betez.
- ***Arazoei irtenbidea ematea eta gatazkak konpontzea.*** Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko ordezkariak hitz ematen dute zentzuzko konponbideak bilatuko dituztela beren erkidegoan dauden gatazkak edo arazoak konpontzeko. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariak (alkateak eta beren gobernu-taldeetako kideak) “izaera politikoa duten auziak, arazoak eta gatazkak” konpondu beharko dituzte. Aitzitik, izaera hori ez duten arazoak udal bakoitzeko zuzendaritzako edo administrazioako egituretan konpondu beharko dira. Alkatea ez da “irregulartasunen kudeatzailea”, eta ez du inondik ere izan behar; era berean, ez da auzo-erkidegoko arazoak leku guztietan konpontzeaz arduratu behar.
- ***Beharrezkoa denean, ordezkariak ematea.*** Euskal Autonomia Erkidegoko alkateak hitz ematen dute garrantzi txikiagoko gaiak beste batzuen esku utziko dituztela, beren erakundearen eraginkortasuna hobetu ahal izateko, eta herritarrei zerbitzu hobeak eskaini ahal izateko. Gobernuko zereginak betetzen dituen tokiko ordezkari politikoak gai garrantzitsuak hartu behar ditu ardatz gisa, eta beste batzuen esku utzi behar ditu garrantzi txikiagoko gaiak. Hala ere, ondo aztertu behar da zein pertsonaren esku utziko diren gai horiek. Izan ere, pertsona horrek beharrezkoak diren eskumenak izan beharko ditu, bere esku utzitako zereginak behar bezala bete ahal izateko, azken batean, herritarren interesa ondo bermatu ahal izateko, eta herritarren itxaropenei eta interesei hutsik ez egiteko.
- ***Erantzukizunez negoziatzea.*** Udaleko arduradun politikoek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udaleko finantza publikoak babesteko, edozein motatako taldeekin, oposizioko alderdietako kideekin edo instituzioekin negoziazioan aritzean. Izan ere, ez da jarrera arduratsua etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikari guztiek hitz ematen dute behar den guztietan esango dutela ezetz, negoziazioko prozesuetan daudela, eta arrazoiak emango dituztela, ezezko guztiei buruzko datu objektiboak aurkeztuko dituztela, eta, hortaz, “ezetz positibo” (justifikatu) eta arduratsuen alde egingo dutela.
- ***Baliabide urriei lehentasuna ematea.*** Aurrekontuei eusteko oraingo testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikariak erantzukizunez kudeatu behar dituzte udalerrietako baliabide publikoak, eraginkortasunari eta ekonomiari lotutako irizpideak

erabiliz. Horren ondorioz, udal-aurrekontuak errealistak eta zehatzak izango dira, gastuari eusteko eta zerbitzuen kostua kontrolatzeko politikak ezarriko dira, aurrekontua udal-politikei egokituta egongo da, eta, horrenbestez, herritarrek ez dira zergen bidez zigortu beharko, baliabide publikoen kudeaketa txarra izateagatik.

- **Udaleko politika publikoak ebaluatzea eta gainbegiratzea.** Alkateek eta beren gobernu-taldeetako kideek hitz ematen dute beren erantzukizunaren pean osorik dauden zerbitzuak eta politikak etengabe ebaluatu eta gainbegiratuko dituztela, horrela, hasieran aurreikusitako helburuetan eta kostuetan inolako desbideratzerik egon ez dadin. Era berean, galarazi egingo dute desbideratze horiek herritarren kalterako izatea. Zeregin horiek betetzeko, beren talde teknikoak eta aholkulari teknikoak hartuko dituzte oinarritzat.
- **Sareak eratzea eta gobernu irekia bultzatzea.** Udal-politikaren arduradunek hitz ematen dute gardentasuna eta gobernu irekia lortzeko politika garatuko dutela. Era berean, sareak eratzeko saiaturik dira, eta, ildo horretan, informazioa eta sinergiak trukatzeko dituzte, tokiko gobernuaren garapena sustatzeko, eta laguntza emateko zerbitzuak egitean kostuak gutxitu eta konponbideak partekatu ahal izateko. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako gobernu-taldeek tokiko gobernantza adimentsua sustatuko dute, eta, horretarako, hainbat formula baliatuko dituzte, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzea sustatzen duten, hurbiltasunari lotuta dauden eta hausnarketa pizten duten formulak, hartara, herritarrek instituzioengan duten konfiantza indartu ahal izateko.
- **Gobernuko taldeetako edo beren zuzendaritza- edo administrazio-taldeetako buru izatea.** Alkateek –bereziki, baina gobernu taldeetako kideek ere bai– hitz ematen dute gehienbat gogatzeko ahalmenean eta eredugarritasunean oinarrituta dauden lidergoak bultzatuko dituztela beren udaletan. Horrela, profesionaltasuna garatuko dute, proiektu jakin batean lanean ari diren zuzendaritzako taldeen eta enplegatuen arteko kohesioa indartuko dute, laguntza emango dute beren erakundeetan jarduten duten pertsonen emoziozko garapenari eta orekari eusteko, testuinguruan duten jardura erraztuz, eta, horrez gain, konpentsatzeko eta pizgarriak emateko sistemak baliatuko dituzte. Ondo egindako lidergoa bide baliagarria izango da herritarrei egiten zaizkien zerbitzu publikoak hobetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioeko alderdietako kideek beren gain hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak

Euskal Autonomia Erkidegoko udal-oposizioeko alderdietako kideek, eta, era berean, udal-gobernua osatu gabe hari laguntza ematen dioten taldeetako kideek erantzukizunez eta modu eraikitzailean egingo diote oposizio politikoa gobernuko taldeari. Horretan aritzean, zintotasunez jokatzeko dute instituzioekin, eta ahalik eta ongizaterik handiena eskainiko diete herritarrei, dagozkien eskumenen esparruan eta udalak eskura dituen baliabideen arabera.

Oposizioko alderdien zeregin instituzionala betetzeko, udal-gobernuaren ekintza politikoki kontrolatu behar da, eta proposamen bideragarriak eta iraunkorrak eskaini behar zaizkie herritarrei, gobernurako benetako hautabidea izateko.

Ondorio horretarako, udal-oposizioko alderdietako kideek konpromiso eta erantzukizun hauek hartuko dituzte beren gain, herritarren aurrean:

- **Instituzioa duintasunez ordezkatztea.** Oposizioko kideek konpromisoa hartzen dute instituzioa duintasunez ordezkatzeko, parte hartzen duten ekitaldi, zeremonia edo jarduera instituzional guztietan. Instituzioko ordezkariak dira, hautestontzietan lortu duten legezkotasun demokratikoaren bidez. Era berean, hitz ematen dute zintzotasunez beteko dituztela dagozkien zeregin publikoak, eta zuzentasunez eta eutsitasunez arituko direla karguan, eta jokabide publikoan eta pribatuan. Nolanahi ere, zuzentasun instituzionalaz arituko dira, beren udaleko gobernu taldearekin edo gehiengoarekin harreman politikoak eta instituzionalak izatean.
- **Herritarren eskaerak eraginkortasunez bideratzea eta jakinaraztea eta gogotsu entzutea.** Udaleko oposizioak hitz ematen du erantzukizunez bideratuko dituela herritarren eskaerak, era horretan, balioetsi ahal izateko, eta, hala behar denean, onartzeko. Ildo horretan, eraginkortasunez arituko dira, eta gogotsu eta arretaz entzungo dituzte herritarren kezkak, iradokizunak eta kexak. Horrez gain, hitz ematen dute ez dutela objektiboki arrazoizko justifikaziorik ez duen eskaerarik azalduko, hain zuzen ere, udalari eta herritarrei eragingo dizkieten finantzazko kostu haziak direla-eta onartzeko ezintasun materiala sorraraz dezaketen eskaerak.
- **Lankidetzan aritzea udaleko helburu estrategikoak zehazteko.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute modu onuragarrian eta eraginkorrean arituko direla elkarlanean, gobernu taldearekin batera, udalerriko etorkizuna marrazteko lagungarriak izan daitezkeen helburuak zehazteko, horrela, helburu horiei jarraiki, udal-politika koherentea eta iraunkorra egin ahal izateko, herritarren onurarako. Elkarlaneko politika horren ardatz nagusia plangintza estrategikoko tresnak izango dira; eta, hala dagokionean, behar den moduan egokituko dira, inguruabarrak edo testuinguruak hala eskatzen badute. Era berean, gobernu taldeekin itunak edo akordioak egiten saiatuko dira, aginduko planen edo gobernu planen jarduteko oinarritzko ildoak zehazteko, eta, era horretan udalaren eta herritarren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.
- **Politika batzuei lehentasuna ematea, udaleko finantza publikoek udalak eskainitako zerbitzu-zorroaren arlo guztietan esku hartzeko aukerarik ematen ez dutenean.** Udaleko oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute, gobernu taldea kontrolatzeko eta proposamenak egiteko eta zereginak betetzean, udalerriko finantza publikoen egoera hartuko dutela kontuan bereziki, eta, egoera hori nolakoa den, lehentasunak finkatuko dituztela, beren programa politikoari jarraiki, haien ustez une bakoitzean ezinbestekoak direnak hautatuz, herritarren beharrazanei aurre egiteko. Hortaz, baliabide urriak hartuko dituzte aintzat bereziki, hala behar denean; bestalde, zerbitzuen zorroa finantzazko koordinatu horien arabera doitu edo egokituko dute, eta, horrela, saihestu egingo dute udalerriko finantzak ito daitezen, eta finantzako betebeharrak etorkizuneko belaunaldien esku gera daitezen.

- **Udal-gobernuaren ekintza kontrolatzea eta hainbat politika publikoren kudeaketako helburuen eta emaitzen jarraipena egitea.** Oposizioko alderdiek duten zeregin instituzional nagusietako bat da gobernuaren ekintza kontrolatzea, eta hautabide sinesgarria izatea hurrengo hauteskunde-prozesuei begira. Esparru horretan, oposizioko alderdietako kideek hitz ematen dute udal-politikaren jarraipen eraginkorra egingo dutela, behar adina denbora emango dutela zeregin horiek garatzen, eta zorrotz kontrolatuko dituztela gobernu taldearen ekintzak udal-politika publikoaren hainbat esparrutan dituen helburuak eta emaitzak. Zeregin horiek osorik gauzatzeko, udal-gobernuak tresna guztiak jarriko ditu oposizioaren esku, eta informazioa jasotzeko sarbidea erraztuko dio, indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraiki.
- **Arazoei irtenbidea emateko eta gatazkak konpontzeko laguntza ematea.** Oposizioko alderdietako tokiko ordezkariak hitz ematen dute laguntza emango dutela, gobernu taldearekin batera, erkidegoak dituen gatazka edo arazo guztiei zentzuzko irtenbidea aurkitzeko. Arazo eta gatazka horien kudeaketaren azken erantzukizuna, jakina, udaleko gobernu taldearena izango da. Hala ere, oposizioko alderdietako kideek bitartekotza- eta kontrol-lana egingo dute, eta, horrenbestez, aukerak bilatuko dituzte kostu publikoak gutxitzeko eta, aldi berean, kasu bakoitzean dauden interes publikoak eta pribatuak zentzuz betetzeko.
- **Erantzukizunez negoziatzea.** Oposizioko udal-alderdietako arduradun politikoek konpromisoa hartzen dute taldeko interesak eta udalaren finantza publikoen iraunkortasuna babesteko, gobernu taldearen edo bestelako erakundeen edo herritarren aurrean negoziatzeko prozesuetan aritzean. Era berean, onartzen dute ez litzatekeela jarrera arduratsua izango etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jartzea edo udalerria iraunkorra ez den eran zorpetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako tokiko politikariek konpromisoa hartzen dute negoziazioko prozesu guztietan erantzukizunez negoziatzeko, eta era esplizituan justifikatzeko zein arrazoiengatik hartzen duten jarrera jakin bat, era horretan, herritarrek horren berri izan dezaten eta, hala behar denean, balioetsi dezaten.
- **Erantzukizunez parte hartzea udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Baliabide urriei lehentasuna ematea.** Aurrekontuari eusteko egungo egoeran, Euskal Autonomia Erkidegoko oposizioko alderdietako politikariek konpromisoa hartzen dute erantzukizunez parte hartzeko udal-aurrekontuak prestatzeko lanetan. Ildo horretan, elkarguneak bilatu, eta helburu errealistak zehaztuko dituzte, udalerri bakoitzak dituen baliabide publikoen eraginkortasun eta ekonomia arloko irizpideei jarraiki. Oposizioko alderdietako kide gisa egiten duten lana aurrekontuari egokituko zaio, udalerriak finantza iraunkorrak izan ditzan, horrela, etorkizuneko udalaren jardura arriskuan ez jartzeko, eta, era berean, herritarrak zergen bidez ez zigortzeko.
- **Gobernu irekia eta udal-gardentasuna bultzatzen laguntzea.** Udal-oposizioko alderdietako arduradunek hitz ematen dute gogotsu arituko direla lankidetzan, gardentasuna eta gobernu irekia lortzeko politika garatzeko. Era berean, sareak eratzen saiatuko dira, eta, ildo horretan, informazioa eta sinergiak trukatzeko dituzte, laguntza emateko zerbitzuak egitean kostuak gutxitu eta konponbideak partekatu ahal izateko. Oposizioko alderdietako kideek tokiko gobernantza adimentsua eta herritarrek parte

hartzeko dituzten tresnak bultzatuko dituzte, dagozkien zereginak betetzen, herritarrek instituzioengan duten uste ona indartze aldera.

ZIRRIBORROA